

MAIATZAK 1

CONFEBASK ESPLOTATZAILEA! LANGILEEN ALDE *Gutxieneko soldata eta pentsioak hemen erabaki*



Kapitalismoak mundu mailako krisi ekosoziala eragin du. Bestelako eredu baten alde egiteko unea da, denon bizitzak erdigunean jarriko dituen; enplegua, zaintza lanak eta ondasuna era justuan banatuko dituen.

Alabaina, eredu aldaketa eragotzi eta zanaketari eusteko xedez, elite ekonomikoek gerra estrategiari eutsi eta olatu erreakzioarioa hauspotu dute. Euskal Herrian militarismoaren, arrazakeriaren edota indarkeria matxistaren eragina nabarmena bada ere, hemen badago eremu sozial, sindikal eta politiko zabala denon eskubideen alde egiteko prest.

Patronala aseezina da. Gero eta etekin gehiago metatu nahi du. Ekonomia moteltzen den garaietan, krisia langileok ordain dezagun presio egiten du. Enpresei ongi doakienean, berriz, irabaziak akziodunen artean banatu eta langileon lan baldintzak hobetzeari uko egiten dio, areago, kaskartzen jarraitzen du.

Patronalaren diru gosea nabarmen geratu da pandemia osteko prezioen gorakada bizi izan dugunean. Enplegu ordaindua duten langileen artean [kanpo geratzen dira soldatarik gabe lan egiten duten langileak, emakumeak* nagusiki] KPlaren araberako soldata igoerei uko egiteak aspaldi ez bezalako gatazka kopurua eragin du. Zorionez, euskal langileriak borrokaren aldeko apustua egin du eta, horren bidez, erosmen ahalmena bermatzen duten hitzarmenak lortu ditugu eta hitzarmenen estaldura maila handitu dugu. Gainera, hamarkada batean egindako lanari esker bertako hitzarmenen lehentasuna berrezartzea lortu dugu, prekarietatea eragiten duen lan harremanen estatizazioari muga jarri diogu. Negoziazio kolektiboan ikuspegi androzentrikoa nagusitzen da. Emakumeon* lanak, balio txikiagoa du patronalarentzat, honela sektore feminizatueta, zaintza eremuetan, borrokaldi gogor eta luzeak izan arren gehiago kostatzen da akordioak erdiestea.

Hala ere, Confefaskek bere ildo antisozialari eusten dio:

- > **23 hitzarmen sektorial —horietako asko feminizatuak— berritzeari uko egiten dio, soldata arrakalari eutsiz.**
- > **Irabazi handiak izanda ere, pribilegio fiskalei eusten die eta langileon pareko zergak ordaintzeari uko egiten dio.**
- > **Industrian diru publikoa poltsikoratzen jarraitzen du, erabakietan langileen parte hartzea eragozten, trantsizio ekosozialarekin, enpleguarekin konpromisorik hartu gabe.**
- > **Etxeko langileen hitzarmena sortzeko negoziazio mahaia irekitzeari ezezkoa eman dio.**
- > **Gutxieneko soldata propioa adosteko negoziazio mahaia irekitzeari ezezkoa eman dio, sindikatu guzti-**

guztiek, Legebiltzarreko gehiengo zabalak eta Eusko Jauriritzak eskatutakoari muzin eginez.

Langileen alde, hemen erabaki

Patronalak eta haren aldeko politikek gero eta arbuio zabalagoa dute Euskal Herrian. Langileon borrokari esker, klase ikuspegitik garrantzitsuak diren aldarrikapenak ekarri ditugu agendaren erdigunera: osasun sistema publikoa, etxebizitza, zaintza sistema publikoa, gutxieneko soldata eta pentsioak. Gai horietan langileon aldeko neurriak ezarriko badira, presio egiten jarraitu behar dugu eremu guztietan: ekintza sindikalean, kale mailan eta eremu politikoan.

Gutxieneko soldata eta pentsioak funtsezko neurriak dira aberastasuna banatzeko eta langileen arteko arrakala desberdinak murrizteko. Gutxieneko pentsio duin bat, kotizatu ez baina bizitzan zehar lan pila bat egin duten emakumeekiko* dugun zorra [zor patriarkala] ordaintzeko moduetako bat da. Eta gutxieneko soldataren igoerak baldintzarik kaskarrenetan lan egitera behartu dituzten langileei [emakumeak*, migratuak, gazteak, aniztasun funtzionala dutenak] mesede egingo lieke zuzenean; ez haiei bakarrik, langile klase osoaren soldata hobetzeko akulua litzateke.

Hego Euskal Herrian abian jarri ditugu gutxieneko soldata eta gutxieneko pentsio duinak ezartzeko ekimenak. Batetik, gutxieneko soldataren inguruko eskuduntza eskuratzeko Herri Ekimen Legegilea (HEL), bertako instituzioek gutxieneko soldata eta pentsioa ezartzeko ardura eta ahalmena har dezaten, EAEko zein Nafarroako Parlamentuei zuzenduak. EAEn tramitera onartu da, baina ez Nafarroan, Foru Hobekuntzak horretarako eskumenik ez duela argudiatuta. Edonola ere, batean zein bestean aurrera egingo dugu sinadura bilketarekin. Bestetik, egungo legediaren arabera, gutxieneko soldata propioa ezarriko lukeen akordio intersektoriala negoziatzeko mahai bana deitu dugu EAEn eta Nafarroan, baina Confefaskek eta CENek uko egin diote mahaia eratzeari.

Orain arte bezala, borrokaren bidez lortuko dugu langileon aldeko garaipen berriak eskuratzeko. Horregatik da hain garrantzitsua aurtengo Maiatzaren Leheneko mobilizazioetan parte hartzea. Maiatzaren Lehenean, patronal esplotatzaileari aurre egin eta bultzada berri bat emango diogu langile borrokari.

LAB

EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

¡CONFEBASK EXPLOTADOR! LANGILEEN ALDE hemen erabaki

Salario y pensión digna para frenar la precariedad



El capitalismo ha provocado una crisis ecosocial mundial. Es el momento de apostar por un modelo diferente que ponga las vidas de todas las personas en el centro y que garantice un reparto justo del empleo, los cuidados y la riqueza.

Sin embargo, con el objetivo de impedir el cambio de modelo y mantener la opresión, las élites económicas siguen con su estrategia de guerra y fomentan la ola reaccionaria. En Euskal Herria, aunque la influencia del militarismo, el racismo o la violencia machista es evidente, hay un amplio espacio social, sindical y político dispuesto a defender los derechos de todas las personas.

La patronal es insaciable. Pretende acumular cada vez más beneficios. En tiempos de ralentización económica presiona para que la crisis la paguemos los y las trabajadoras. En cambio, cuando a las empresas les va bien, reparte los beneficios entre los accionistas y se resiste a mejorar las condiciones laborales de los y las trabajadoras, más aún, continúa precarizándolas.

La avaricia de la patronal ha quedado patente ante el aumento de los precios que hemos vivido tras la pandemia. Entre las y los trabajadores con empleo remunerado [quedan excluidas las personas que trabajan sin sueldo, principalmente mujeres*] la renuncia por parte de la patronal a los incrementos salariales en función del IPC ha generado un número de conflictos sin precedentes. Afortunadamente, la clase trabajadora vasca ha apostado por la lucha y, a través de ella, además de conseguir convenios que garantizan el poder adquisitivo, hemos aumentado el nivel de cobertura de los convenios. Asimismo, gracias al trabajo realizado durante una década hemos conseguido restablecer la prioridad de los convenios de aquí, limitando la estatización de las relaciones laborales que genera precariedad. En la negociación colectiva predomina una perspectiva androcéntrica, el empleo de las mujeres* tiene un valor menor para la patronal, por lo que en los sectores feminizados, especialmente en los cuidados, a pesar de llevar cabo luchas duras y prolongadas, resulta más difícil alcanzar acuerdos.

Sin embargo, Confebask mantiene su línea antisocial:

- > **Se niega a renovar 23 convenios sectoriales, muchos de ellos feminizados, perpetuando la brecha salarial.**
- > **A pesar de obtener grandes beneficios, mantiene los privilegios fiscales y se niega a tributar como las y los trabajadores.**
- > **Continúa apropiándose de fondos públicos en la industria, impidiendo la participación de las y los trabajadores en las decisiones, sin comprometerse con la transición ecosocial ni con el empleo.**
- > **Ha rechazado abrir una mesa de negociación para crear el convenio de las trabajadoras del hogar.**

> Ha rechazado abrir una mesa de negociación para acordar un salario mínimo propio, ignorando la petición de todos los sindicatos, la amplia mayoría parlamentaria y el Gobierno Vasco.

Aquí decidimos a favor de la clase trabajadora

La patronal y las políticas que la apoyan cuentan con un rechazo cada vez más amplio en Euskal Herria. Gracias a la lucha de los y las trabajadoras hemos situado en el centro de la agenda reivindicaciones de gran importancia desde una perspectiva de clase: el sistema público de salud, la vivienda, el sistema público de cuidados, el salario mínimo y las pensiones. Para que se implementen medidas a favor de las y los trabajadores en estos temas, debemos seguir ejerciendo presión en todos los ámbitos: en la acción sindical, en las calles y en el ámbito político.

El salario mínimo y las pensiones son medidas fundamentales para repartir la riqueza y reducir las brechas existentes entre los trabajadores y trabajadoras. Una pensión mínima digna es una de las formas de saldar la deuda [patriarcal] que tenemos con las mujeres* que, aunque no han cotizado, han realizado una gran cantidad de trabajo a lo largo de sus vidas. Y el aumento del salario mínimo beneficiaría directamente a las y los trabajadores que han sido obligados a trabajar en las condiciones más precarias [mujeres*, personas migradas, jóvenes, o personas con diversidad funcional]; además, sería un incentivo para mejorar los salarios de toda la clase trabajadora.

En Hego Euskal Herria hemos puesto en marcha sendas iniciativas para establecer un salario mínimo y una pensión mínima dignas. Por un lado, hemos impulsado la Iniciativa Legislativa Popular [ILP], dirigida tanto al Parlamento de la CAV como al Parlamento de Navarra, para obtener las competencias sobre el salario mínimo, a fin de que las insituciones de aquí asuman la responsabilidad y la capacidad de establecer el salario mínimo y la pensión mínima. En la CAV ha sido admitida a trámite, pero no en Nafarroa, alegando que el Amejoramiento Foral no tiene competencias para ello. De todos modos, en ambos territorios continuaremos adelante con la recogida de firmas. Por otro lado, según la legislación actual, hemos convocado una mesa en la CAV y otra en Nafarroa para negociar un acuerdo intersectorial que establezca un salario mínimo propio, pero Confebask y CEN han rechazado constituir las.

Como hasta ahora, será a través de la lucha como conseguiremos nuevas victorias en favor de los trabajadores y trabajadoras. Por eso es tan importante participar en las movilizaciones del Primero de Mayo de este año. El Primero de Mayo haremos frente a la patronal explotadora y daremos un nuevo impulso a la lucha obrera.

LAB

EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA